

1961'ko lotazilaren 4'ko bilera

LV'gafena

Egun'erako gaiak : I) LIV'gafen bilkuran azaldutako asmo ta erabakien agiria irakurtzea; ontzat artu, zuzendu ala osotua izan dedin. - II) Agiri onen Amerike'rako laburpenaz orobat egitea. Bai ta artutako gutun eta egindako idazkiak erakustea. - III) Lendakari befia izendatzea; aldatze onen beafaren beste ondorioak. - IV) Euskera ta euskal-kulturari buruzko zabalakundea. - V) "Euskal-kulturaren-irakasle" izendatzeko asmoa. Jafaipena. - VI) Dirua lortzearen bideak azterkatzea. - VII) Beste asmo, galde ta eskariak.

Jaun auek alkarturik : Zaitegi'taf Yokin, Monzon'daf Telesforo, Efezola'taf Yoseba, Solaun'daf Yosu, La Sota'taf Manu, La Sota'taf Eramon, R. de Erzila'taf Gergorio, Gufutxaga'taf Ildefonso, Bilbao'taf Yon eta Ufestarazu'taf Andoni.

Asiera, oitura denez, idazkariak eman zuen, aufeko bilkuraren agiria irakurtzen; gero, Amerika'rakoaz orobat egin zuen; eta biak onartuak izan ziran. Ofen ondoren, gutun auek ere irakufi zituen: Lendabiziz, Euskaltzaindi'k bialdutakoa; ortan, guk len idatzi genionaren erantzuna izanez, eskafik askorekin, Bayona'ko gure uda-solasen erabakiak ontzat artu dituztela diñote.

Bigafen gutun, Monzon jaunak idazkariari idatzi ziona izan zan. Gutun ofen bidez, Monzon jaunak, batzaferako, Leizaola ta Landaburu jaunen iritziak jaso nai zituen.

Irugafen gutuna, Leizaola jaunak emandako erantzuna zekafena izan zan. Landaburu jaunaren erantzuna itzez eman zuen idazkariak.

III'gafen gaia. Zaitegi jaunak lendakari befiaren baietzaren zai geundela esan zuen.

Monzon jaunak, Leizaola ta Landaburu jaunen iritziak zergatik jaso nai-izan zituela esan zuen. Alde batetik, diru-laguntza beaf dugulako, eta bestetik, orain arte gure bilkuraetara entzule bezela azaldu diran R. de Erzila ta Gufutxaga jaunak, EKA'n sartzea egokia iruditzen zitzaiolako; guzia gure batzordearen ahalmena edatzeko xedean.

Ongi iruditu zitzaien guzi ori bildutakoai, eta esandako jaun bi oiek EKA batzordekoak izateko izendatuak izan ziran.

Zaitegi jaunaren alde-egiteari buruz, Efezola jaunak befiro, gure artean geratzeko arentzat ia biderik ez ote zegoen galdetu nai-izan zuen; gutxi baidakera ta daukaguna ez galtzeko egiñalak egin beaf ditugulako.

Zaitegi jaunak onela erantzun zion: Egitan ez du ikusten biderik. Ez du uste poto-egin duela, baña eztaki zer egin lezaken emen geratzeko. Zofak egin beaf-izan ditu, ta orain bere bizia aufera eramateko, lanegin beaf du. Egindakoa ereintza bezela dauka ta ereintza ofek gero zitu onak ekafiko dituela uste du.

Efezola jaunaren ustez, euskeraren alde emen Amerika'n baño geyago egin diteke; eta ara joateko asmoa kendu eziñean, befiro onuntz itzultzea lenbailen izan dedila opa dio.

R. de Erzila jaunaren iritiz, gure gauzak konpondu ezkerro, orduan efaz itzuli liteke. Zaitegi jaunak baietz erantzun zion oni, egokiera ortan lanegiteko tokia izango dalakoan dagoelako.

Monzon jaunak, bere lengo kezakak agertu zituen; baña lengoan bezela jaraitzen baldin badugu, lendakaritza artzea ontzat daukala esan zuen. Alaz ere, bere ustez, Zaitegi jaunak lagatzen digun utzunea betetzea oso zaila izan bea. Berarentzat EKA'ko lendakaria izateko ez da naikoa euskal-elertian zer-txobait egitea, eta, dana dala, Zaitegi jauna guzientzat eredu dala bayeztu zuen; ofengatik, bizi artean gure ohorezko lendakaria izendatzea eskatu zuen. Ongi iruditu zitzairen bildutakoai asmo ori eta ofela egiteko erabaki zan. Esandakoagatik, lendakaritza pozik artzen etzuela gañeratu zuen Monzon jaunak. Eta onela azaldu zuen toki ori artzean berak zeuzkan xedeen zeatza :

- 1- Gure batzordea ugaritu ta befitzea; eta izen aundia eman dizaioketen gizonak gureganatzea.
- 2- Gu baño gazteago diranak ere lanean sartzea, eta ofela eginkizunai bidea gerorako idekitzea.
Bere ustez, egin genitzaken gauzan dira soilik artzeko; eta beste bazkunak egiten ez dutena guk burutzeko.
Bea-beafena berarentzat, abertzaletasunezko bidea da, lan egokia egiteko; beraz noraezekoa da lanerako abertzaleak sutan jartzea.
- 3- Nainta nai ez, dirua lortu ote dezakegun ikusi bea da, edozein lana egin ahal-izateko ofen beafa baita. Efi'ari argi-argi esan bea diogu euskera il-zorian daukagula, bakoitzak bere laguntza eman dezan.

Xede ortarako Euskera'ren Eguna'ren asmoa indartzea, bide egokia izango litzake. La Sota'taf Manu jaunak izan zuen lenengoz asmo ori. Eta datofen urterako, ikasbide bezela, asmo ori befitzea egokia izango litzakela iruditzen zaio Monzon jaunari.

"Eskualtzaleen-Biltzaia" ta gure batzordea alkatu litezke egun ori antolatzeko; edo gu bakaik ari. Bayona'n batza aundi bat antola liteke, alde guzietako euskaltzale sutuak bildu, ta batza oienganako omenaldia bezela izateko asmoz. Ortarako ta guzirako, idazkaritza egokia jartzea beafa zaila esan zuen, Bayona'n bertan, edo Donibane Loitzun'en edo beste toki batean.

Efrezola jaunak ontzat artu zuen Monzon jaunak esandakoa. Eta muga-alde bietan ibil liteken gizon bat eukitzea beafa dala uste zuen, guziekin afemane-tan ari-izateko.

La Sota'taf Manu eta Zaitegi jaunentzat, ondo dago asmo ori, baña ertzai-nekin kontuz ibili bea dala esan zuten.

IV'gafen gaia. Idazkariak len, batzordekoai, gai oni buruzko erderaz egingako idazki bana bialdu zien. Efrezola jaunari ongi iruditzen zaio idazkia, bertan azaltzen diran asmoekiko. Ala ere, EKA'k izenpetu ezkerro, euskeraz egiia izan bea zaila uste du; eta nolabait efiketa-usaia duenezkerro, obe ausaz, alderdiren bat edo batzuk izenpetzea. Orain kinka txaf batean gaudela gañeratu zuen; arestian Frantzia'n agertzen ziran izpafingi-españar batzuei irtetzeko bidea itxi dietela gogoratu zuen; ofengatik, bere ustez, kontuz ibili bea dugu, guri ere ofenbeste egiteko aitzakirik ez emateko. Eta beste gauza bat egin genezake: "Enbata"koai eman oiek argitara dezaten.

Idazkariak, erantzunez, auxa esan zion: Asmo oiek berak Landaburu jaunarenak zirala, Monzon jaunari erantzuteko emanak eta idazkariak berak asieran esan zuen bezela. Idazkariaren ustez, guri emengo au edo beste ura kentzeko, Frantzia'ko agintariak aitzakirik bea ez dutela, ziur egon bea dugu; len, aspalditxoan, ofelaxe jazo zitzaigun azpegi batzuetan. Egia da idazkiak efiketa-usaia duela, bialtzekoan idazkariak berak oaferazi zuen bezela; baña guretzat, abertzaletasuna da, efiketa ta kultura bera gañetik, jokatu bea dana.

La Sota'taf Manu jaunaren aburuz, idazkia EKA'rentzat geyegi edo da; alderdientzat, ordea, gutxiegi.

Efezola jaunak gure xedeak besteak dirala esan zuen, eta ofengatik ez dagokigu, bere ustez, idazki ori izenpetzea.

La Sota'taf Eramon jaunak, asmoa zabalkundea egoaldean egitekoa dala uste zuen; eta Amerika'n ere orobat egiteko egokia izango litzakela.

Azkenez, erabakirik artu gabe, ufengo bilkurarako utzi zan arazo au.

V'kafen gaia. Gai oni buruz, Zaitegi jaunak bere irtzia len eman zuela esan zuen; eta ia besteren batena ote zegoen galdetu zuen.

Efezola jaunak, erantzuten, beti dirua ez eukitzearen oztopoa dugula esan zuen. Eta gai ortaz jafaitzea gerorako ere utzi zan.

Gaien tarteko bat sartu nai zuela esan zuen Zaitegi jaunak. Ain zuzen befi on batez ari-izateko. Bayona'ko Euskal-Erakustoki'an ilean bein emateko itzaldiak antolatu dituzte; asmoa Krutwig jaunarena izan da eta ango "Ibaia" bazkunak antolatu ditu. Aufeko astean Azpiazu Aitak eman zuen berea; gai ontaz: Israel'en izkuntza indartu ta zabaltzeko egin dutena. Izpaf batzuk zeatzez eman ondoren, azpegi auk nabarmendu zituen oso jakingarriak diralakoa: izkuntzaren alde egindako lanak, lenengoak izan ziran israeldaren artean; ofela, efiketaren bidez azkatasuna lortu baño lenago, Tel-Aviv'en bizi ziran eberketaren artean eunetik 54 eberkeraz egiten zuten, beren bizirako beaf guztietan; eta azkatasuna lortu zutenean, eunetik 90 ziran eberkeraz mintzatzen ziranak. Aientzat, ez dago abefirik izkuntzarik bage. Eta aspalditik esan zitzaenez, Israel, biotzean eta izkeraz euki ta eutsi ahal-izan dute.

VI'gafen gaia. Dirua lortzeko ere, Monzon jaunak Euskera'ren Eguna'ren asmoa utzi beaf ez dugula esan zuen. Ofi buruz ari-izateko, bere ustez, 15 egun bañu edo, beste bilkura bat euki beaf-izango genuke. Eta Eskualtzaleen Biltzarra'koekin itzegin, Euskeraren Eguna'ri gañantzi aundiena guziok eman dizaiogun.

Edateko iru itufi dauzkagula gañeratu zuen Monzon jaunak; Egoaldekoa, Ipafaldekoa ta Amerika'koa. Irurek alkartu beaf ditugu, beti Amerika'koengana ez jotzeko, eta alde guztietan zabalkundea erabiltzeko.

La Sota'taf Eramon jaunaren iritziz, dirua bilatzeko, ortarako mutilak izan ditezken gizonak aurkitu beaf diralakoa egon beaf.

Monzon jaunak, batzuei suzenda-baño-obeto zuzentzea baño obeto, efi osoari egitea izango dala esan zuen; ordubeteko lanaren saria eskatzen, esate baterako. Eta idazkaritza euki beaf dala uste du, beaf-beafa gañera, dana berotzeko.

Ufengo ilearen bilerarako, diruarena ta EKA'ren antolatze befia, gaiak bezela jartzeko erabaki zan; bai ta bitartean, beste bilera txiki bat egitea ere.

Onela amaitu zan bilkura.
